

AITA BISITATZERA

Martin Ugalde

Hondarribia-ko azken alean irakurri dut Maritxu Begixuri-ren biografia.

Hara, honetarakoxe ari gara egiten hilerokoa: herriko historia ezagutzeko, gaur bertan gertatzen ari direnak jakiteko, herriaren etorkizunerako agiantariak dituzten asmoak ezagutzeko, eta asmo hauen aurrean herritarrek bere iritzia emateko.

Hau da kazetaritzaren muina.

Ba neuk *Hondarribia*-ko maiatzeko alean jakin dut Maritxu nor den; neuk ezagutzen nuen, noski, baina emakume honen pertsonalitate alai eta langilearen berri ez dut izan oraintxe arte; ez nekien ihauterietan mozorrotzeko ohituera zuenik ere; eta, gehiago: hor agertzen den gizon sonbrerodun hori ikusi nuen kalez-kale, grazi handiarekin, baina ez nuen sekula pentsatu neuk ezagutzen nuen inor zenik.

Hau dena, eta beste berri asko, gure hilerokoaren bitartez jakin ahal izan ditut.

Honek esan nahi du, kazetaritza herriko honak baduela zentzu garrantzitsu bat; elkarren berri izateko bide polita eta behar-beharrezkoa dela gainera; gaurko Honda-

ribia ez baita 1936go herrixka, ezta mundu-gerra amaitu zeneko 1945koa, eta ezta ni neu honeratu nintzaneko 1969koa ere.

Urte hau aipatzen dut, bereziki, honi eta Maritxu Begixuri-ri lotua baitago neuk hemen azaldu nahi dudana.

Aipa izandu dut, Hondarribiako Enrike Albizu, pintore ospatsua, Venezuelan eza-gutu nuela; han egin zituen urte batzu bere obra ederra zabaltzen; erretratu handien artean, Joseba Andoni Agirre Lehendakariarena egin zuen Caracaseko Eusko Etxearen



enkarguz; erakusketa batzu ere egin zituen, eta hauetako batean erosi nion Hondarribian egin eta hara eramane zituen artean, erretratu bat. Askok gustatu zitzaizun kuadroa zen: arrantzale bat mahaian eserita gazta, ogi eta porroi baten aurrean.

Aurpegi paketsu eta begirada goxoko gizona.

Oraindik ezagutzen ez nituen Ondarribiko gizon urdinetako bat.

Neuk ez nekien inoiz honeratu nintzenik; baina uzte gabeko gauza asko gertatzen zaizkio gizakiari, eta hara nola urteak joan eta honeratzaren garen, eta harrez gero hemen oso pozik bizi garen.

Nire gogoz, betirako.

Ba, ni honera etorri berriko egun batean atea jo eta neronek ireki nuen; eta andere polit bat zen bere aitarengatik galdezka, bere aita ikusi nahi zuela. Neuk esan nion, tronpatu egin zela, han neu bizi nintzela nire familiarekin...

"Bai, biño nere aita hemen dago kuadro batean"...

Berehala konturatu nintzen, emazteki haren begi gris-xuriak lehen beste nonbaite ikusi nituela... geure saloiean egunerok ikusten nuen patxara goxoko gizonaren aurpegian!...

Halaxe eskatu nion sartzeko, mesedez, eta jarri nuen Maritxu bere aitaren aurrean.

BANDOLEROTZATIK DANTZA-BILTZAILERA, PRESONDEGIAN KONTZEEZ MAITEMINDURIK

**Maite bat maitatzen dut maitagarria,
begi ederra du ta guztiz argia,**

daukat urruti,

**baña ezin kendu det buruti,
haren itxura.**

**Saldu al baliteke pisura
urriaren truke,**

nork erosi faltako ez nuke.

Jose Manterola donostiarrak **Cancionero Vasco** (1877) bildumaren lehen liburukian argitaratu zuenean ezer gutxi zekien egile zen Iztuetaren bizitzaz. Gaur, oraindik ere, ez dakigu gauza askorik. Baina maitasunez gainezka idatzitako bertso horietan ezkutuko misteriorik nabari da.

Misterio hortan argitasuna ematera itagunduko zigan gutun bat bada, oraintsu berargitaratua. Luis de Usoz y Rio nafar protestantearen Antologia, Eugenio Cobo-k prestaturik, atera berri du Madrid-eko Ediciones Pléroma etxeak "Clásicos del Protestantismo" sailean. Bertan dator, 169. orrialdean, Mitxeleanak **Historia de la Literatura Vasca** (1960) liburuan aipatzen zigan gutuna, Iztuetaren gaztaroko bandolero bizitza salatzen duena. Bi urte lehenago (1958) A. Irigaray midikuak Euskalerrriaren Adiskideak Elkarteko boletinean emana zuen Luis de Usozen gutun hori.

Gutuna, 1842an J. Gråberg Hemsö jaunari Alemaniara idatzia zen, **Gipuzkoako dantzak** (1824) liburu igorritz.

Non agertzen zuen egile zen Juan Inazio Iztuetaren bidelapurtzazko ogiñidea, esanaz: "Iztueta que fue en principio ladrón de caminos o bandolero; robaba en compañía de un hermano suyo...", eta harririk zegoen holako gaizkile bati liburu argitaratzen usteaz, beraiek. Biblia Sainduaren zabalkunderako eragozpena baizik aurkitzen ez zuten garaietan. Baina Usozek apenak apenaz zekien ezer Iztuetarenaren kritika gisa Fr. Bartolomek barreiatu zituen gatz-ozpin duez.

Anaia atxilotu zutenean, meatxuz eta zenbait mesederen truke, Juan Inazio preso hartzen lagundu omen zuen. Nork pentsa holakorik? Harrigarria baderitzagu ere, gertakari horren ondorioz sortu zen "Kontzezi" eskainia den kanta hori; sentipenez beterik baina halaholako hizkeraz. Bere doinu politik lagundu dio euskaldunon ahoetan gure denboretara arte irauaraztea eta hori ere bada zerbait. Dantzen liburuak ordea, gaiaren aldetiko balioak ditu eta uka ezinezkoa zaigu horri esker salbatu direla ohizko folkloreaken zati asko, eraskinez eman zigan doinuak musika jator asko salbatu zituen bezala.

Dantzen hirugarren zatia erdialdera "Ondarribia andia" eta "Ondarribia txikia" zeritzaien berri ematen du, zenbat dantzari, konpaz taxurak eta puntuak zehatz-mehatz adiaraziz. Gaur egun inork ba ote dakizki dantza ho-

riek? Beste dantza batzuk iraun dute, baina Hondarribikoez apenaz dakigu Iztueta biltzailearen bizitzaz adina.

Ezer guti horren barnean, hara hor, Azpeitin sei urtez preso zergatik eduki zuten: bideetako lapurketegatik. Presondegian ezagutu zuen Kontzezi kuttuna, apezaren neskame zelarik haurdun gelditu ondorean, haur jaio berria hil zuelako han bertan preso zegoena. Horrela izan zuten elkar ezagutzeko aukera. Iztuetaren bihotza, bandoleroa izanagatik ere, sentibera izaki eta hunkiturik aurkitu zen. Baina: "hogeita lau lequaz nago aparte, bitartean badauzkat miloi bat ate..." Sentiberatasunak eraginik, tristuraz egingo zituen maitasunezko bertso haiek: "Egunaz argi gutxi, gauean ilun, kontsuelorik ez da neretzat iñun".

Poesiagintzarako ikasia ez bazen ere, irudimena bizkortu zitzaion, erromantiko giroan murgildurik.

Bizitzaz, bertso horiek ematen digute argibidezko zirrikiturik eta azkenengoak ordea gaizkilegoaren damuarena:

**Esperantzetan bizi, maite gozao;
noizbait kunplituko da gure plazao;
eta orduan...**

**gauza txarrik ez hartu buruan,
lengoai utzi;**

**ez degu pasatzen pena gutxi
preso sei urtez
onduko gaituzte nere uestez.**

Juan San Martin